

**LABURPENA**

**2012-2020RAKO DEBABARRENEKO**

**IRAUNKORTASUNERAKO EKINTZA**

**PLANAREN BERRIKUSPEN PARTZIALA**

**JARDUKETA PROPOSAMENA**

**2022**



## **MEMORIAREN AURKIBIDEA**

### **0. TESTUINGURUA ETA HELBURUAK.**

### **1. METODOLOGIA.**

### **2. BERRIKUSPEN-PROZESUA.**

#### **2.1. 2011-2015ERAKO EKINTZA PLANAREN ETA DEBABARRENAREN EGOERAREN AZTERKETA.**

##### **2.1.1. KARGUA UTZI DUEN UDALBATZAREN ETA KARGUA HARTZEN DUENAREN ARTEKO KONPARAZIO KUALITATIBOA.**

##### **2.1.2. PROIEKTU ESTRATEGIKOEN JARRAIPEN-FITXEN GARAPENA.**

##### **2.1.3.- DEBABARRENA ESKUALDEKO EGOERAREN DESKRIBAPENA (2016).**

#### **2.2. IDEIEN ETA PROPOSAMENEN GARAPENA.**

#### **2.3. BERRIKUSITAKO PLANAREN BERRIKUSPENA ETA DEFINIZIOA.**

#### **2.4. PROIEKTUEN ETA EKINTZEN LEHENESPENA.**

##### **2.4.1.- FORMULARIOAREN EMAITZAK.**

##### **2.4.2.- ESKUALDEKO MAHAIA ETA EMAITZAK.**

#### **2.5. PLANAREN DEFINIZIOA.**

##### **2.5.1. PLANAREN GAKOAK.**

##### **2.5.2. LERRO ESTRATEGIKOEN ETA EGITARAUEN GARAPENA.**

### **3. BERRIKUSPENA ETA JARRAIPENA.**

## **ERANSKINAK:**

1. eranskina: 2011-2015eko eta 2015-2019ko udalbatzetako ordezkarietara egindako inkestak

2. eranskina: Elkarrizketa kualitatiboaren emaitzak

3. eranskina: Proiektu estrategikoen garapen-mailaren ebaluaziorako fitxak

4. eranskina: Aurkezpenak / tokiko batzordeak (udalerriaren eta dataren arabera ordenatuta)
5. eranskina: Tokiko batzordeen aktak
- 6.1. eranskina: ESKUALDEKO formularioa
- 6.2. eranskina: Debako formularioa
- 6.3. eranskina: Eibarko formularioa
- 6.4. eranskina: Elgoibarko formularioa
- 6.5. eranskina: Soralezeko formularioa
- 6.6. eranskina: Mutrikuko formularioa
7. eranskina: Eskualdeko mahaiaren eta Ekintza Planaren zirriborroaren aurkezpena

## 0. TESTUINGURUA ETA HELBURUAK.

Debegesak sustatuta, dokumentu honetan, 2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren Berrikuspen Partziala egiten da; hain zuzen, 2011-2015 denboraldia amaitu osteko berrikuspena. Berrikuspen partzialak “2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Plana” dokumentuan ezarritakoa betetzen du, eta aintzat hartzen du eskualde-mailako erronkei heldu behar zaiela gero eta azkarrago aldatzen den testuinguru honetan. Berrikuspen partziala denez, 2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Planean adierazitako ikuspegiari eusten dio, eta iraunkortasunerako beharrezkoak diren proiektu estrategikoetan jartzen du arreta.

### DEBABARRENAREN 2020RAKO IKUSPEGIA

Debabarrenak eskualdearekin bat egiten duen gizartea izatea, pertsona guztiak barne hartzen dituen gizartea izatea, elkartasun, berdintasun, sormen eta ekintzaitzaren balio tradizionalak sendotzen dituen proiektu komun batean.

Oparotasunaren oinarri eskualdeko ohiko enpresa- eta industria-dinamismoa duen gizarte bat, etorkizuna berrikuntzaren bidez eta ezagutzan nahiz teknologian intentsiboagoak diren enpresa eta sektore berriak sortuz eratzen duena, metalarekin, makina-erremintarekin eta automobil-industriarekin lotutako jardueretatik harago doan enpresa-sarea duena.

Prestakuntza ezin hobea duten eta Debabarrena ezagutzaren gizartean sartzeko zimenduak jartzen dituzten pertsonak osatutako gizarte-sare bat. Hori guztia lurralde erakargarri batean, ingurumen-arazo nagusiak gainditu baititu, Debagoienarekin eta Durangaldearekin metropoli-eremu bat sortzera bideratuta baitago.

Iturria: DEBABARRENA: 2020rako Garapen Iraunkorrerako Estrategia.

Dokumentu hau tresnatzat sortu da, hain zuzen ere Debabarrena eskualdearen nortasuna finkatzen laguntzeko. Eskualde honetan, ekintzaitza, lankidetzeta-elkarlana, zuzentasuna eta errespetua dira garrantzi bereziko balioak.

2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Plana bi plan bateratzeko prozesu baten ondorioz garatu zen. Hauek ziren plan horiek: alde batetik, 2020rako Garapen Iraunkorrerako Estrategia eta, beste batetik, Debabarreneko Agenda 21eko Eskualdeko Ekintza Plana. Berrikuspena 2020an egitea

aurreikusita zegoen. Dena den, dokumentu honetan jasotzen den berrikuspen partzialeko prozesua atzeratu zenez, Debarreneko udalek planaren iraunaldia 2020ra luzatzea erabaki zuten.

Orobat, Debegesak baditu plangintza-elementuak eta sektoreko erreferentzia-dokumentuak, eta sektoreko mahai eta foroetan jorratu izan dira. Elementu eta dokumentu horiek input bat ekarri dute proiektu, ildo eta estrategiak aztertzerakoan. Hortaz, hona hemen:

- Debarreneko Hiri Garapen Iraunkor Integraturako Estrategia – HGIE (2015)
- Debarreneko Turismo Plan Estrategikoa (2020)
- Debarreneko Energia Estrategia (2013)
- Debarreneko Enplegu Plana (Eibar, Soralue, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku)
- Debarreneko Smart Estrategia (2015)
- Debarreneko Enpresen Dibertsifikaziorako Plana (2012)
- Robotikaren eta automatizazioaren kontzeptualizazioa, eta Debarreneko industria-sektorean finkatzeko gakoak (2017)
- Debarrena industria-lurraldea. Lurralde-orekarako proposamenak

“2012-2020rako Debarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren Berrikuspen Partziala - 2022rako Jarduketa Proposamena” dokumentuaren helburu orokorrak hauek dira:

- *Eskualdeko lurralde-nortasuna indartzea eta baterako ikuspegia sortzea.*
- *Lurraldeko erronka estrategikoak berrikustea eta lehenestea, berritzaileak izan daitezten, eta Debarreneko gizarte- eta ekonomia-eraldaketa bideratu dezaten.*
- *Eskualde-mailako estrategiak diseinatzean, erantzukizunez jokatzeko: konponbideak modu partekatuan (maila politikoan eta teknikoan) bilatzea.*
- *Eskualdeko, tokiko eta funtsezko eragileak ekintzailetzaren bitartez gaitzea, harreman eta interakzio berriak eratu ditzaten, Debarrenean garapena eta lehiakortasuna handitzea eragiten duten ekimenak bilatzeko eta aplikatzeko lankidetzan jardute aldera.*
- *Lurralde-garapenerako beste eredu parte-hartzaile eta iraunkor bat sortzea.*
- *Ekimenak ezartzeko aldeko ingurune bat eratzeko testuinguru publiko bat sortzea, berrikuntza eta ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapena bideratzeko.*
- *Eskualde-esparruan baterako sorkuntza ahalbidetzea; hots, lankidetzaren sustatzea, haren bidez eskualdeko eragileek euren estrategia eta proiektuak zehaztu ditzaten.*

Azkenik, eta dokumentu hau ahalik ondoen uler dadin, haren atalak deskribatuko ditugu.


- **Metodologia:** Atal horretan, 2022rako proiektu estrategikoak berrikusteko prozesu metodologikoa, faseak eta partaidetza-egitura jasotzen dira, baita metodologia zehazteko erabilitako laguntza-elementuak ere.
- **Berrikusp-en-prozesua:** Berrikusp-en-prozesua goitik behera azaltzen da, azterketatik definiziora, eta prozesuak fase bakoitzean egindako ekarpenak ere bai.
- **Planaren berrikusp-ena eta jarraip-ena:** Planaren jarraip-en egokia egiteko metodologia bat proposatzen da, dokumentu bizia izan dadin.

Dokumentu hau Debabarrena eskualdeko plangintza estrategikotzat hartu behar da, Debegesak eskualdegarapenerako agentzia gisa duen jarduera-esparruari dagokionez.

## 1. METODOLOGIA

### 1.1. BERRIKUSPENAREN FASEAK

Berrikuspen-prozesua egiteko bost fase ezarri dira. Irudi honetan ageri dira (ikus 1. irudia):



1. irudia: Debabarreneko lurralde-politikako parte-hartzearen egitura. Iturria: Debegesa.

Orain, bost fase horiek deskribatuko ditugu:

**Azterketa eta egoera** (ikus 2.1. atala): Lehen fasearen helburua da Debabarrena eskualdearen abiapuntua (egoera) adostasunez zehaztea. Horretarako, udalbatzen informazio kualitatiboa eta zenbait iturrik emandako datu kuantitatiboak erabili dira. Gainera, 2011-2015erako Iraunkortasunerako Ekintza Planean adierazitako proiektu estrategikoak ebaluatu dira. Fase honetan, laguntza-elementu hauek erabili dira:

- Inkesta kualitatiboa.
  - 1. eranskina: 2011-2015eko eta 2015-2019ko udalbatzetako ordezkariari egindako inkesta.
- Proiektu estrategikoen garapen-mailaren ebaluaziorako fitxak eta etorkizuneko jarduketa-proposamena.
  - 3. eranskina: Proiektu estrategikoen garapen-mailaren ebaluaziorako fitxak.
- Debabarrena eskualdearen egoeraren azterketa.



**Ideien eta proposamenen garapena** (ikus 2.2. atala): Ideiak eta proposamenak biltzeko, tokiko batzordeak osatu dira udalerrri bakoitzean. Tokiko batzordeak egiteko, PowerPointeko aurkezpenak prestatu dira (7. eranskina: Aurkezpenak / tokiko batzordeak), bat udalerrri bakoitzerako. Honela egituratu dira:

- Plana berrikusteko proposamen metodologikoa.
- Berrikusi beharreko ekintza-planaren ezaugarriak: gako eta ildo estrategikoak.
- Datu adierazgarriak. Udal- eta eskualde-mailakoak.
- Egikaritze-proiektuak.
- Eskualdeko proiektuak hautemateko partaidetza-dinamika.

Fase honetan, laguntza-elementu hauek erabili dira:

- 4. eranskina: Aurkezpenak / tokiko batzordeak (udalerrriaren eta dataren arabera ordenatuta).

**Planaren berrikuspena eta definizioa** (ikus 2.3. atala): Aurreko faseetan lortutako emaitzetan oinarrituta, eta Debabarreneko sektoreko plan eta mahaietako proiektu eta ekintzak kontuan hartuta, **planaren lehen zirriborroa** egin da Debegesako Zuzendaritza Kontseiluaren baitan. Proposamen horrek bi ikuspegi biltzen ditu, eskualdekoa eta tokikoa. Ikuspegi bakoitzari buruzko galde-sorta bat egin da, hurrengo fasean landuko direnak. Hauek dira galde-sortak:

- Eskualdeko ikuspegiari buruzko galde-sorta: hartan, Debabarreneko udalek eskualde-mailako ikuspegiarekin identifikatutako proiektu, egitarau edo proposamenak jasotzen dira.
- Tokiko ikuspegiari buruzko galde-sorta: hartan, udalek aurreko faseetan tokiko ikuspegiarekin lehentasunezko zat identifikatutako proiektu, egitarau edo proposamenak biltzen dira, lerro estrategikoen, proiektuen eta ekintzen arabera antolatuta.

Fase honetan, laguntza-elementu hauek erabili dira:

6.1. eranskina: ESKUALDEKO formularioa

6.2. eranskina: Debako formularioa

6.3. eranskina: Eibarko formularioa

6.4. eranskina: Elgoibarko formularioa

6.5. eranskina: Soralezeko formularioa

6.6. eranskina: Mutrikuko formularioa

**Proiektuen eta ekintzen lehenespena** (ikus 2.4. atala): Proiektu eta ekintzak lehenesteko, aurreko atalean diseinatutako formularioak (ekintza-planen zirriborroak) erabili dira. Haietan, gehienez ere 10 proiektu lehenestea proposatzen da, eskualdeko eta tokiko ikuspegi arabera.

- Eskualdeko ikuspegia: 10 proiektu lehenetsi dira.
- Tokiko ikuspegia: 10 proiektu lehenetsi dira.

Ikuspegi bikoitz horri esker, emaitzen irakurketa bikoitza egin daiteke; alegia, alde batetik, tokiko lehentasunak identifikatu, eta, beste batetik, eskualdekoak. Halaber, tokiko lehentasunen eta eskualdeko lehentasunen arteko interakzio-maila ezartzeko aukera ematen du; hau da, jakiteko zenbateraino bat etortzen diren eskualdeko eta tokiko lehentasunak.


Azkenik, zehaztu behar da Mendaro, Mallabia eta Mutriku udalerrietan eskualdeko formularioa soilik erabili dela.

Lehenespenaren ondorioz lortutako emaitzak aztertu ondoren, **planaren bigarren zirriborroa** egin zen (9. eranskina: Ekintza planaren zirriborroa eskualdeko mahaiarentzat). Zirriborro hori udalerrri guztietako tokiko mahaietan parte hartu duten pertsoneri eman zaie. Gainera, Eskualdeko Mahaian ere erabili izan da.

**Planaren definizioa eta onespina** (ikus 2.4. atala): Eskualdeko mahaiak egindako ekarpenak jaso ondoren, Debegesako Zuzendaritza Kontseiluak “2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren Berrikuspen Partziala - 2022rako Jarduketa Proposamena” zehaztu zuen. Proposamen hori Debegesako Administrazio Kontseiluari helarazi zion, onar zezan.

## 1.2.- DEBABARRENEKO LURRALDE-POLITIKAKO PARTE-HARTZEAREN EGITURA

“2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren Berrikuspen Partziala - 2022rako Jarduketa Proposamena” dokumentuaren esparruan, helburu nagusietako bat Debabarreneko udalek (teknikariak eta politikariak) eskualdeko estrategian parte har dezaten sustatzea izan da. Hori dela eta, aurrekoetan bezala estrategia Administrazio Kontseiluan lantzeaz gain, batera lan egiteko esparru gehigarriak ezarri dira (hala nola eskualde-mailako tokiko batzordeak eta eskualdeko mahaia), eta areagotu egin da udalen parte-hartzea sektoreko foro eta mahaietan.



2. irudia: Planaren berrikuspenean parte hartzeko prozesua. Iturria: Debegesa.

Jarraian, berrikuspen-prozesu honetako partaidetzako organo eta mahaien ezaugarri nagusiak deskribatuko ditugu.

#### **Debegesako Administrazio Kontseilua** (ikus 2. irudia, 1. erreferentzia)

Debabarrena eskualdeko zortzi alkateek osatutako gobernantza-eredua sendotzea. "2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren Berrikuspen Partziala - 2022rako Jarduketa Proposamena" dokumentua onestea organo horri dagokio.

#### **Aholku Kontseilua.** (ikus 2. irudia, 2. erreferentzia)

Eskualdeko eragile garrantzitsuak (enpresak, elkarateak...) biltzen dituen lan-mahaia. Debegesa hura koordinatzeaz eta proposamenak bideratzeaz arduratzen da.

#### **Debegesako Zuzendaritza Kontseilua** (ikus 2. irudia, 3. erreferentzia)

Debegesako lan-arlo guztietako zuzendariak eta Zuzendaritza Nagusiak osatzen dute.

#### **Eskualde-mailako tokiko batzordeak - Udal-mahaia** (ikus grafikoa, 7. erreferentzia)

Berrikuspen hau egiten zen bitartean, udalerrietara hurbiltzeko ahalegin berezia egin da. Horretarako, baterako hausnarketa-bilerak egin dira eskualdeko udal guztietan: eskualde-mailako tokiko batzordeak - Udal-mahaia. Udalbatzek edo alkateek zehaztu dute mahai horien osaera; bakoitzak bere udalerriko mahaian zer arduradun teknikok eta politikok parte hartu behar zuten erabaki zuen.

#### **Eskualdeko mahaia.** (ikus grafikoa, 4. erreferentzia)

2012-2020rako Debabarreneko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren berrikuspen partziala eta 2022rako Jarduketa Proposamena egiteko bereziki sortutako mahaia da. Mahaia osatzerakoan, Debegesak hau eskatu die Debabarreneko udalei: alkateez gain, udal bakoitzeko politikari eta teknikarien ordezkariak batek ere parte hartzea. Hori dela eta, udal bakoitzak erabaki zuen zer pertsonak parte hartuko zuten mahaian.

#### **Herritarren parte-hartzea.** (ikus 2. irudia, 5. erreferentzia)

Ekintza Planaren berrikuspen honetan, zirriborroa herritarren esku utzi da, [www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus) webgunean, euren ekarpenak egin ditzaten.

### **Sektoreko foro eta mahaiak.** (ikus 2. irudia, 6. erreferentzia)

Tokiko eta udalaz gaindiko erakundeek, bakoitza bere gobernantza-mailan, proiektu zehatzekin erlazioatutako sektoreko foro eta mahaietan hartzen dute parte. Bi mahai- edo foro-mota daudela esan dezakegu. Batzuetan, erakundeek soilik hartzen dute parte, eta, besteetan, erakundeez gain, ekonomia-, ingurumen- edota gizarte-eragile garrantzitsuek ere hartzen dute parte.

Jarraian, Debegesaren sektoreko mahai eta foroak deskribatuko ditugu, gaingiroki:

- **Deba ibaiaren mahai:** 2006an sortu zen, Deba Ibaia eta Ego adarra Balioesteko eta Leheneratzeko Programa Integrala martxan jartzeko. Mahai horretan, arlo horretan eskumena duten eta, hortaz, ibaiarekin lotutako proposamenen inguruan zerbait esateko duten eragile guztiek hartzen dute parte. Mahaiaren helburu nagusia baterako garapen-estrategia bat adostea eta haren jarraipena egitea da. Estrategia horretako zenbait jarduketa gauzatu dira dagoeneko.
- **Mugikortasunaren edo garraio publikoaren mahai:** 2005ean sortu zen, Debabarreneko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana sustatzeko. Mahai horri dagozkion jarduketak garatzerakoan, mugikortasunaren esparruan eskumena duten eragileen parte-hartzea izan da alderdirik garrantzitsua: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza, garraio-operadoreak eta udalak. Hori dela eta, garatutako ekintzak zenbait eragileren ahalegin kolektiboaren emaitza izan dira. Ekintzarik garrantzitsuenak honako hauek dira:
  - Eskualdeko bidegorrien sarea sustatzea. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorreko Departamentua aipatutako sarearen bi atal egikaritzen ari da, eta, laster, eskualdeko sareari buruzko hausnarketa egingo da.
  - Garraio publikoa. Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Departamentuarekin lankidetzan, garraio publikoko zerbitzuak hobetu dira.
  - Intermodalitatea. Geltoki intermodal bat ezartzeko bideragarritasuna aztertu da.
- **Debabarreneko Smart Estrategia:** Estrategia 2014an garatu zen, integratutako eta tokiko beharretara egokitutako Debabarrena Smart-aren eredu bat garatzeko. Aukera bat da plangintza-prozesuetan berritzeko eta IKT berriek baliabideen erabilera eraginkorragoa izateko eskaintzen dituzten aurrerapenak aplikatzeko, baldin eta etorkizuneko hiri-eredu batera joateko erabiltzen badira (eskualdea, kasu honetan), ingurumenaren aldetik, ekonomikoki eta sozialki iraunkorragoa den hiri-eredu batera joateko. Haren garapenean, eskualdeko udalerrri guztietako teknikariek hartu dute parte.



1. eta 2. irudiak: Udalerriko teknikarien saio parte-hartzaileak, Debabarreneko Smart Estrategia garatzeko.

- **Energia-mahaia:** 2013. urteaz geroztik, hots, Debabarreneko Energia Estrategia onartu zenez geroztik, Debabarreneko udalak aldizka biltzen dira. Mahai hori Debabarrena eskualdeko energia-etzabaidarako foroa da. Mahaiaren helburu nagusiak honako hauek dira:
  - Debabarreneko Energia Estrategia sustatzea.
  - Garatu beharreko ekintzak adostea.
  - Udalaren inplikazioa bermatzea proiektu eta ekintzen garapenean.
  - Jardunbide onen berri ematea.
  - Energia-gaietan, udal-gaikuntza handitzea.

Mahaia aldizka bildu da, eta Debabarreneko udalerrietako ordezkari politikoek edota teknikariek osatzen dute. Mahai hori udaletako ordezkariak osatuta dago, batez ere. Besteak beste, argiztapen publikoa edota udal-eraikinen mantentzea kudeatu behar dute.

- **Debabarreneko Eskualdeko Turismo Mahaia:** Debabarreneko Turismoaren Sustapenerako Lehen Planaren 2001ean abian jarri zenetik, urtean bi aldiz biltzen da. Haren osaera denboraren joanean aldatu da. Gaur egun, mahai tematiko bakoitzaren ekarpenak bildu, eta Jardunbide Onen Programaren ebaluazio-proposamenak berrikusi eta onartzen ditu. Ondoren, akordioak hartu eta Erakunde Mahaiari edo Debegesako Administrazio Kontseiluari helarazten dizkie, behin betiko onartzeko. Era berean, eragile publikoen mahaiak jardunean jarraitzen du.

Lan-taldeak martxan jartzeko, Basquetour-ek ezarritako jarraibideak hartu dira kontuan, eta den-denak, neurri handiagoan edo txikiagoan, Debabarreneko 2020rako Turismo Plan Estrategikoaren (Debegesako Administrazio Kontseiluak onartua) jarraipena egiteko funtzioa dute. Beraz, planaren berrikuspenean jasotako programa eta ekintzek Debabarreneko 2020rako Turismo Plan Estrategikoa dute oinarri, baita Plan honen hausnarketa-prozesuan egindako ekarpenak ere.

- **Debabarreneko Enplegu Mahaia:** Debegesako Administrazio Kontseiluaren ekimenez sortua, 2015ean. Debegesak dinamizatzen du mahaia.

Ekimenaren helburua da gure udalerrietako langabezia-tasak murriztea (gure udalerrietako bi, Eibar eta Soraluze, Gipuzkoako langabezia-tasaren lehen postuetan daude).

Enplegu Mahaian, arlo horretako entitate eta erakunde guztiek hartzen dute parte:: industria- enpresak, lanbide-heziketako zentroak, unibertsitateak, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, Spri, Sprilur, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Debabarrenko udalak.

Lortu nahi dugun helburua konplexua dela eta, Enplegu Mahaia sinergia handiak dituzten hiru lan-eremuetan egituratu da: azpiegiturak, prestakuntza (langabetuak) eta enpresen lehiakortasuna.

- **Azpiegitura Mahaia:** Haren helburua da egungo azpiegiturak (pabilioiak eta lurzorua) hobetzea, jarduera ekonomikoa finkatzeko, sortzeko eta erakartzeko.
- **Enpresa Lehiakortasunaren Mahaia:** Debabarrenean berrindustrializazio-eredu bat garatzea eta ezartzea du helburu, gure eskualdeko industria-pisuari eusteko.
- **Prestakuntza Mahaia:** Haren helburua eragileen arteko lankidetzaren sare bat sortzea da, langabeak lan-mundura itzultzeko helburu komunak zehazteko eta eskualdeko produkzio-ehunei behar bezala erantzuteko.

Kontuan izan behar da, berrikuspen-prozesuaren eta Enplegu Mahaiaaren hausnarketen ondorioz, 1. lerro estrategikoan zehaztutako programak eta ekintzak ezarri direla. Enplegu Mahaian - Lehiakortasun Ardatzean parte hartutako enpresak eta erakundeak) artean lankidetzan zehaztu dira programa eta ekintza horiek (2016-2017ko berrikuspena eta “Debabarrena lurralde-industria. Lurralde-orekarako proposamenak”, 2017ko abendua).

## 2. BERRIKUSPEN-PROZESUA

### 2.1. 2011-2015ERAKO EKINTZA PLANAREN ETA DEBABARRENAREN EGOERAREN AZTERKETA

#### 2.1.1. 2011-2015EKO UDALBATZAREN ETA 2015-2019KO UDALBATZAREN ARTEKO KONPARAZIO KUALITATIBOA

Planaren berrikuspenaren hasiera eta metodologia Debegesako Administrazio Kontseiluaren baitan adostu zen, eta 2015. urtean hasi zen, irteerako 2011-2015eko udalbatzarekin eta sarrerako 2015-2019ko udalbatzarekin. Prozesua aurreko udalbatzek pilatutako ezagutza eta esperientzia integratzen saiatu da, eta parte-hartzaileen ikuspegi berria sartzen.

Banan banako bilera bereziak egin dira udalbatzekin, batik bat 2011-2015 eta 2015-2019 legegintzaldietako alkateekin, bakoitzaren udalerriko eta eskualdeko beharren eta lehentasunen pertzepzio kualitatiboa biltzeko. Horretarako, inkesta zehatz bat diseinatu da. Dokumentu honetako 1. eranskina da: 2011-2015eko eta 2015-2019ko udalbatzetako ordezkariari egindako inkesta.

Aipatu beharra dago udalerrietako alkateek egin dituztela ekarpen horiek, eta, gehienetan, ez zaizkie jakinarazi udaletako gainerako teknikei eta politikariari (13 pertsona).

	UDALBATZA 2011-2015	UDALBATZA 2015-2019
<b>DEBA</b>		Bilera alkatearekin
<b>ELGOIBAR</b>	Bilera alkatearekin	Bilera alkatearekin
<b>EIBAR</b>	Bilera alkatearekin	Bilera Garapen ekonomikoko zinegotziarekin
<b>ERMUA</b>		
<b>MALLABIA</b>		
<b>MENDARO</b>	Bilera alkatearekin	
<b>MUTRIKU</b>	<i>Betetako inkestaren bidalketa</i>	<i>Bilera alkatearekin</i>
<b>SORALUZE</b>	<i>Betetako inkestaren bidalketa</i>	<i>Inkesta jaso zen, eta bilera</i>



Ez zen erantzunik jaso

Egindako konparazioaren egitura honako hau izan da:

- Debegesaren funtzionamenduari eta xedeari buruzko ekarpenak eta hausnarketak.
- Eskualdeko elementuei eta lan-ildoei buruzko ekarpenak eta hausnarketak.
- Tokiko lanari laguntzeko lerroei buruzko ekarpenak eta hausnarketak.

Inkesta hori (1. eranskina) laguntza-elementu bat izan zitekeenean erabili da.

Inkestaren emaitzak 2. eranskinean daude: Elkarrizketak kualitatiboen emaitza; ondorio nagusietako bat eskualdeko nortasunik eza izan da.

Debegesaren funtzionamenduari eta xedeari dagokienez, honako hauek identifikatu dira hobekuntza-puntu nagusitzat: elkarrizketa eta koordinazioa udalekin, emaitzen ebaluaziorako eta jarraipenerako sistema, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanak sendotzeko beharra.



Eskualdeko elementuei eta lan-ildoei buruzko ekarpen eta iradokizunei dagokienez, erronka nagusia jarduketa-esparru komunitan lan egitea da, betiere,, enplegua sustatzen duten ekintzei lehentasuna emanaz. Hona hemen esparru horietako batzuk: industria-jarduera, Deba ibaia, garraioa, energia, saneamendua, balioen sustapena, ezagutzaren transferentzia, industrialdeen berronratzea eta Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkea.

Tokiko proiektuetarako laguntza-lerroei buruzko ekarpen eta iradokizunei dagokienez, udal bakoitzak bere lehentasunak ezartzen ditu, gehienbat arestian aipatutako eskualde-lehentasunekin bat etortzen direnak.

### **2.1.2.- PROIEKTU ESTRATEGIKOEN JARRAIPEN-FITXEN GARAPENA**

2011-2015erako Iraunkortasunerako Ekintza Planean adierazitako proiektu estrategikoak ebaluatu dira.

Debegesaren intranetaren bidez, udalen eskura jarri ziren 2011-2015erako Iraunkortasunerako Ekintza Planean zehaztutako eskualdeko proiektu estrategiko bakoitzaren fitxa guztiak. Fitxa horiek 2016. urtearen hasieran egin ziren, eta, beraz, daturik berrienak 2015ekoak dira.

Jarraian, proiektu estrategikoen fitxa guztien egitura jasotzen da.

- Lan-ildoan jasotako lerro estrategiko nagusiak.
- Egungo egoera (2015).
- 2011-2015 denboraldiko lerro estrategikoaren garapen-maila.

Garatutako fitxak, 3. eranskinean ageri direnak: Proiektu estrategikoen garapen-mailaren ebaluaziorako fitxak. Hauek dira:

- *Debabarrena, Industria-lurraldea, berritzailea eta lehiakorra.*
- *Natura-turismoa eta kultura-turismoa: Jomuga Debabarrena.*
- *Deba ibaia, eskualdearen ardatza.*
- *Eskualdeko buruaren hiri-berritze iraunkorra*
- *Debabarrena, energia adimentsua.*
- *Mugikortasun iraunkorraren trenera igotzea.*
- *Gure Balioak.*

### 2.1.3. DEBABARRENA ESQUALDEKO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Fitxategien konparazio kualitatiboen eta beste informazio batzuen ondorioz, Debarrena eskualdearen egoera deskribatzen da. Deskribapen horretan, eskualdean osatzen duten elementu nagusiak soilik hartzen dira kontuan, eta bereizgarriak izan daitezkeenak nabarmentzen dira. Ez da deskribapen zehatza, kualitatiboa baizik.

## DEBABARRENEKO ESQUALDEA




3. irudia: Debarreneko planoa, hura osatzen duten udalerriak erakusten dituena.

**Debarrena** eskualdeak 72.567 biztanle ditu. Deba ibaiaren Ego ibaiadarraren beheko arroan dago, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) **bi lurralde historikoetako 8 udalerrik** osatzen dute. Bi lurralde historikoetako (**Gipuzkoa eta Bizkaia**) udalerririk izatea arazo bat da batzuetan, eskualdeko erronken kudeaketa bateratzeko; horixe da Debarrenak kontuan hartu beharreko erronka nagusietakoa.

**Deba ibaia** udalerri horietako elementu natural komuna da, eta eskualdearen ardatza da. Eskualdean, udalerririk bakoitzak bere funtzioa du, eta izaera bereizgarria eta osagarria (industrial, turistikoa, bizitokia). Gaur egun, Deba ibaiak ez du saneamendu azpiegiturarik Mallabian (industrialdeetan ere ez), Mendaron eta, Mutrikan, Mijoa errekan.


Debarrena EAeko erdialdean dago, **hiru hiriburuetatik distantzia berera**, eta AP-8 eta AP-1 autobideek zeharkatzen dute. Horren ondorioz, Bilbok (lehenik) eta Donostiak (ondoren) euren hiri-garapeneko estrategien bidez eratu dituzten metropoli-guneetatik urrun dago (ikus 4. irudia). Komunikazio onak daude, eta, beraz, ez dago urrun horregatik; izan ere, euskal hiriburuak gauzatu duten edo gauzatzuko duten garapen-eredutik urrun dago.



4. irudia

Garapen-eredu horren ondorioz, euskal hiriburuetarantz jotzen duen errealitate ekonomiko zentripetu bat sortzen da. Izan ere, inbertsioa, biztanleria eta garapena erakartzeko guneak sortzen dituzte, eta horrek desorekatu egiten ditu Debarrena bezalako eskualdeak. Hiru hiriburuetatik antzeko distantziara dagoenez, metropoli-politikatik urrunen dagoen eskualdea da Debarrena.

Egoera horrek kezka handia pizten du tradizionalki industria-sektore sendo eta dinamikoarekin lotutako ongizate-maila handia izan duen eskualde batean.



Udalerrien konfigurazioa eta **orografia konplexua** direla eta, garatutako hiri-ingurunea ez da oso atsegina: etxebizitza-dentsitatea oso handia da, eta hainbat industria-eraikin daude erdiguneetan. Hiri-sarea oso trinkoa da, alde batetik, eta, beste batetik, irisgarritasun-arazoak daude herrien erdiguneko goiko kale eta auzoetan, eta eskualdeko joan-etorri gehienak ibilgailu pribatuan egiten dira; hau da, ematen du oso espazio itxia dela.

Debabarreneko udalerrietako hiri-egitura **industria- eta etxebizitza-eraikinen nahasketa** da, batez ere Ermua, Eibar, Soralue eta Elgoibarren. Debabarrenak **eraikin-parke zaharkitua** du; etxebizitza-parkeko eraikin askok 50 urte dituzte edo laster izango dituzte (1979tik aurrekoak dira, hots, eraikuntza-kalitateko oinarriko irizpideak ezartzen zituen lehen araudia egin baino lehenagokoak). Udalerri gehienetan, 1979tik aurreko eraikinen ehunekoak % 50 ingurukoa da, edo handiagoa; izan ere, Eibar da horrelako eraikin gehien dituen udalerria.

Industrian oso eragin handia izan du Debabarreneko **hiri-garapenean**, eta hiriko arazo asko XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetako industrializazio-garaiko garapenean sortu ziren, eskualdean lan egitera jende asko etorri zenean, alegia. 1980ko hamarkadako industria-krisiak eta gaur egungo krisialdi ekonomikoak arazo horiek areagotu dituzte, bereziki **Soraluzen**; hango hiri-inguruak arreta berezia behar du, kalitate-estandarrak Debabarreneko gainerako udalerrietakoen antzekoa izan daitezten.

Debabarrena eskualdea oso ondo komunikatuta dago **garraio-azpiegiturei** dagokienez, eta trenbidea da eskualdeko udalerri gehien arteko lotura-elementua. Garraio publikoko zerbitzuari dagokionez, Eibar, Elgoibar eta Ermua udalerrien artean, maiztasun handiko trena dago; gainerako udalerrien arteko trenbide-komunikazioa askoz ere kaskarragoa da. Autobus bidezko garraio publikoko zerbitzuak hobera egin du azken urteetan, nahiz eta oraindik ere gabezia nabarmenak izan (batez ere hiriburuekiko komunikazioa). Bizikleta bidezko mugikortasunari dagokionez, ia ez dago azpiegitaririk, ez udalerrien artean (Elgoibar-

Maltzaga tarte, foru-aldundien eskumenekoa), ez udalerrien barrualdean (Eibarko trenbidearen estalkiaren zati bat). Azkenean, Debabarrena eskualdeko udalerrietan, ez dago ia azpiegiturarik auto elektrikoentzat.

Debabarrenean, tradizioz, **industria-sektorea izan da nagusi**, eta horrek, jakina, eragina izan du sektore horretako establezimendu-kopuruan eta sortutako enpleguan. Horri esker, eskualdeko ongizate-maila handi samarra izan da hainbat hamarkadatan.

Azken urteetan, **hirugarren sektorearen garrantzia handitu egin da** eskualdean, **oinarrizko esparruetan [1]**, industria-esparruaren kalterako.

Egoera hori aztertzeko, bi gako-adierazle erabili dira, eskualdeko industria-sektoreko pisuaren bilakaera negatiboa ikusteko: enpresen kopurua eta industria-sektoreko lanpostuen kopurua.

2009-2016 denboraldian, bi adierazleek joera negatiboa izan zuten. Zehazki, garai hartan, **57 enpresa desagertu dira**, industria-ehun osoaren % 9,39. Halaber, industria-sektorean, 10.855 lanpostu zeuden 2009an, eta 9.487 lanpostu, 2016. urtean. Bestalde, 2014an izan zuen sektoreak lanpostu gutxien, 9.268 lanpostu (galera maximoa % 15ekoa izan da). Laburbilduz, **8 urtean**, Debabarreneko **industria-lanpostuen % 12,60 galdu da**; hain zuzen, **1.300 lanpostu** (Iturria: Garapen Agentzien Euskal Elkartearen behatokia).

[1] Oinarrizko esparruak, hala nola saltoki txikiak, tabernak, balio erantsi txikiko zerbitzuak eta, oro har, autonomoen jarduerak; alegia, lanpostu gutxi sortzen dituztenak.. Horien aldean, industria-esparrua, balio erantsi handia duena, eta balio erantsi handiko zerbitzu profesionalak, besteak beste.

Gehienetan, ETEak eta mikroETEak ixteak eragin du industria-enpleguaren suntsipen hori. Izan ere, enpresa horiek sotiltasunez, ia oharkabean, itxi dira, eta horrek eragin du joera kezagarri hori.

Gainera, ezin dugu alde batera utzi, enpresa txikiez gain, gure eskualdeko funtseko abantaila lehiakorretako bat ere desagertzen ari dela: industria-ekosistema gisa duen garrantzia, enpresa eragileek eta produktu propioen enpresek aurrera egiteko funtsezkoa.

Aitzitik, **zerbitzu-sektoreak** gero eta garrantzi handiagoa du, lanpostu-kopurua eta establezimendu-kopurua kontuan hartuta. Nabarmendu behar dugu 2009tik 2016ra bitartean zerbitzu-sektoreko lanpostu-kopurua % 14,29 handitu zela. Eta, gainera, 2017an, establezimenduen % 86,26 zerbitzu-sektorean zegoen (eraikuntza, merkataritza, garraioa, ostalaritza, finantza-jarduerak, aseguruak...).

Telekomunikazioen azpiegiturak kontuan hartuta, aipatu beharra dago Ermuko Udalak **abiadura handiko zuntz optikoko** udal-sare bat zabaldu duela etxebizitzetara, nahiz eta oraindik ez industrialdeetan eta

industria-eremuetan. Sare horrek ekintzaileen negozio-jarduerak sustatzea du xede, bai eta, Administrazioaren aldetik, telezaintzako eta gizarte-osasuneko zerbitzu-aukera berriak ere. Azkenik, kontutan izan behar da Mallabian eta Mutrikuko erdigune historikoan oraindik ez da zuntz optikoa zabaldu, enpresa instalatzaileek interesik agertu ez dutelako. Estaldura-arazo horiek, gainera, nabarmenak dira eskualdeko landa-eremu askotan.

Orobat, eskualdeko industrialdeak (Otaola, Matxaria, Ibur Erreka, Itziar, Sigma, Arriaga, Urtia, Errekalde...) **berroneratu** beharra begien bistakoa da, eta azpiegiturak (zoruak eta pabilioiak) hobetu behar dira, jarduera ekonomikoa finkatu, sortu eta erakartzeko. Industria-sektoreaz gain, beste sektore batzuk indartu behar dira, eskualdearen garapen ekonomikoa lortzeko. Arlo horretan, **turismo-sektorearen** potentziala azpimarratu behar da ingurumen- eta paisaia-interesa dela eta. Ildo horretan, Euskal Kostaldeko UNESCO Munduko Geoparkea erakargarri nagusia da. Geoparkearen barruan, Mutriku eta Deba arrazoibide propioa lantzen hasi dira, euren kokapena eta turismo-erakarpina handitu nahian Geoparkearen barruan. Halaber, aipatzekoa da turismo-inbertsioa erakartzeko zailtasuna; Debako Kresala Hotela da horren erakusgarri. Ostalaritzari dagokionez, enpresen tamaina txikia dela eta, lehiakortasuna funtsezkoa da, oraindik ere. Azkenik, azpimarratu behar da barnealdeko turismoa duela gutxi hasi dela garatzen.

**Immigrazioa**, berez, ez da arazo espezifiko bat eskualdean. Dena den, atzerritar-kopuruak gora egin du azken urteetan, eta ghetizazio-joera bat dago zenbait hiri-gunetan eta ikastetxetan.

Biztanleriaren **zahartze-prozesua** nabarmena da, eta zahartzearen tasa handiagoa da Gipuzkoan, Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan baino.

Langabeziari dagokionez, eskualdeko **langabezia-tasa** Bizkaikoa baino txikiagoa, Gipuzkoakoa baino handiagoa, eta EAEkoaren antzekoa da. Hala ere, bi udalerrik gaintu egiten duten erkidegoko batezbestekoa, eta Gipuzkoan langabezia-tasarik handiena duten udalerrien artean daude. Orobat, azpimarratu behar da langabezia dauden pertsona gehienek ez dutela lanbide-prestakuntza akreditaturik; hau da, derrigorrezko edo Batxilergoko ikasketak soilik aitortzen dituzte, eta ikasketa-maila hori ez dator bat eskualdeko enpresen eskaerekin. Era berean, ezin dugu ahaztu langabezia-tasan dagoen genero-arraila, emakumeei gehien eragiten diena.

Bada azpimarratu beharreko beste alderdi bat: Debarreneneko pobrezia-tasa da azken urteetan gehien areagotu dena. Oro har, Debarrenak ditu **gizarte-bazterketaren** inguruko adierazlerik txarrenak: pobrezia: errenta pertsonal txikia, DSBEaren hartzaileen kopurua, zahartze- eta mendekotasun-tasak, langabezia-tasak, immigrazioa, etab.

Halaber, azpimarratu behar da **energiarekiko mendekotasun handia** duela. Energia elektrikoaren autohorniketa % 3,8koa da gutxi gorabehera. Eskualdean, eskualdeko ekoizlerik handiena Mallabia da (Oiz

mendiko haize-parkea). Ekoizpena haize-energiatik eta energia hidraulikotik lortzen da batik bat, Mallabiko haize-parkeari, Elgoibar eta Soralezeko zentral hidroelektrikoei, eta Mutrikuko olatuen energia aprobetxatzeko zentralari esker.

Deba ibaiari dagokionez, saneamendu-lanak ez dira oraindik amaitu, eta, gaur egun, EAeko ibairik degradatuenetako bat da. Oraindik egikaritu gabe dauden saneamendu-lan nagusiak Mijoa errekarri, Mendaroko udalerrinari, eta Mallabiko Urtia eta Goitondo industrialdeari dagozkienak dira. Era berean, Debabarrenak ingurumen-balio handiko hainbat esparru ditu: Natura 2000 Sareko bi esparru, Arno eta Izarraitz; Deba-Zumaia kostaldeko biotopo babestua; eta beste ingurune batzuk, hala nola Debako padurak, zazpi hondartza, Karakate, Sallobente eta Arrate.

## 2.2. IDEIEN ETA PROPOSAMENEN GARAPENA

Kargua utzitako eta kargua hartutako udalbatzekin egindako bilerez gain, ahalegin berezia egin da, eta eskualde-mailako bilerak egin dira udaletxe bakoitzean. Saio horietan, tokiko beharrianak azaldu ziren, eta eskualdean duten eragina ebaluatu. Hona hemen hurrengo bilera-datak eta parte-hartzaileak:

UDALERRIA	DATA	PARTE-HARTZAILEAK
Deba	2016-03-03	Alkatea eta Gobernu Batzordea, alderdi politiko guztien ordezkariak, eta Ingurumeneko, Turismoko eta Kulturako teknikariak. 5. eranskina: Tokiko batzordeen aktak
Eibar	2016-03-30 2017-05-02	Ogasun eta Garapen Ekonomikoko zinegotzia, Hirigintzako aholkulari juridikoa, ETE-en teknikaria eta Kulturako teknikaria. Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza eta Ogasuneko zinegotzia, Ingurumeneko teknikaria, Hirigintzako aholkulari juridikoa, Kultura Saileko arduraduna eta Zerbitzu Saileko arduraduna. 5. eranskina: Tokiko batzordeen aktak
Ermua	2016-04-14	Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotzia, Plangintza Estrategiko eta Berrikuntza Alorreko zuzendaria.
Elgoibar	2016-02-01	Alkatea, Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotzia, Ogasuneko zinegotzia Arkitektoa, eta Kulturako, Ingurumeneko, Garapen Ekonomikoko eta Gizarte Ongizateko teknikariak 5. eranskina Tokiko batzordeen aktak
Mallabia	2016-02-17	Alkatea, aparejadorea eta udaletxeko idazkaria. Beste bilera bat egin zen alkatearekin soilik. 5. eranskina: Tokiko batzordeen aktak
Mendaro	2016-03-02 2017-02-20	Alkatea, Hirigintzako zinegotzia eta Euskarako zinegotzia Alkatea, Hirigintzako zinegotzia, eta Nekazal Gaiak, Herritarren Parte-hartzea eta Gardentasuna batzorde informatiboko presidentea. 5. eranskina: Tokiko batzordeen aktak
Mutriku	2016-04-05	Alkatea, Ogasuneko zinegotzia, Obra eta Hirigintzako zinegotzia, alderdi politiko guztietako ordezkariak, aparejadorea. 5. eranskina: Tokiko batzordeen aktak



Soraluze	2016-02-24	Alkatea, aparejadorea, Ingurumeneko teknikaria 5. eranskina: Tokiko batzordeen aktak
----------	------------	--

4. eranskinean (Aurkezpenak / tokiko batzordeak), aipaturako bileretan egindako aurkezpenak biltzen dira, eta 5. eranskinean (Tokiko batzordeen aktak), berriz, bilera haietako aktak. Ondorio nagusiak honako hauek dira: indarrean dauden lerro estrategikoei eutsiko zaie, eta herritarren artean eskualdeko nortasuna sortzen lagundu dezaketen proiektuak identifikatuko dira. Orobat, enplegua sortzeko eta industria-inguruneari laguntzeko jarduketak identifikatu eta indartuko dira.

### 2.3. BERRIKUSITAKO PLANAREN LEHEN ZIRRIBORROAREN BERRIKUSPENA ETA DEFINIZIOA

Orain arte egindako lan guztietatik, galde-sorten (formularioa) bidez **planaren lehen zirriborroa** egitea proposatzen da, eskualdean garatu beharreko ekintzen lehentasuna ezartzeko, eta eskualdeko eta tokiko lehentasunak konparatzeko, berdinak zein diren jakite aldera.

Formulario horretan, elkarrizketa kualitatiboetan, eskualde-mailako tokiko mahaietan eta fitxen bidez garaturako proiektu estrategikoen berrikuspenean jasotako proposamenez gain, Debabarreneko udalek identifikaturako proiektu, egitarau edo proposamenak ere bildu dira; hain zuzen ere, Debegesak parte hartzen duen foro eta mahaietan identifikaturakoak. Formulario horiek eskualde-mailako tokiko mahietan parte hartzen duten pertsona guztiei bidali zaizkie.

Eskualdeko eta tokiko galde-sortek egitura bera dute; hau da, lerro estrategikoei eutsi egin zaie. Eskualdeko formularioak, tokikoek bezala, bederatzi lerro estrategiko proposatzen ditu; hala ere, edukia desberdina da. Jarraian, eskualdeko formularioa beti kontuan hartuta, lerro estrategikoak eta haien edukia azalduko ditugu laburpen gisa:

LE 1: DEBABARRENA, INDUSTRIA-LURRALDEA, LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA.

Besteak beste, hauek hartzen ditu barne: industria-lurrak sortzea/birsortzea, industrialdeak balioestea eta haien antolaketa hobetzea, berrindustrializazio-estrategia bat zehaztea, enpresa berrien sorrera bultzatzea, gazteak industriara bideratzea, prestakuntza-zentroen eta enpresa-ehunaren arteko lankidetzasarea hobetzea, lan-sareak sortzea eta enpresen arteko lankidetzaren sustatzea.

LE 2: NATURA-TURISMOA ETA KULTURA-TURISMOA: JOMUGA DEBABARRENA.

Ildo horretan, gai hauek jorratzen dira besteak beste: seinaleztapena, hiri-apainketa, kalitatea, kultura-turismoa, natura-turismoa, turismoaren dibertsifikazioa eta hobekuntza, elkarlana euskal kostaldeko UNESCO Munduko Geoparkearekin, turismo-marketina eta turismo-lehiakortasunaren hobekuntza.

#### LE 3: DEBA IBAIA, ESKUALDEAREN ARDATZA.

Deba ibaiari dagokionez, hau proposatzen da besteak beste: berreskurapen ekologikoa, ibaiaren hiri-irudiaren hobekuntza udalerrietatik igarotzean, Estuarioaren Plan Berezia, saneamendu-lanen bultzada, uraren kalitatearen hobekuntza, Eibar eta Ermua arteko ibai-tartea, eta uholde-arriskua txikitzea.

#### LE 4: ESKUALDEKO BURUAREN HIRI-BERRITZE IRAUNKORRA

Hiriaren berritze-prozesuari dagokionez, hau proposatzen da: hiri-ingurunea hobetzea, erdiguneetan oinezkoen mugikortasuna sustatzea, industria-erabilera izandako eraikinak zaharberitzea, auzo desfaboratuak birgaitzea, irisgarritasuna hobetzea, udalerrien hiri-irudia hobetzea...

#### LE 5: DEBABARRENA, ENERGIA ADIMENTSUA.

Ildo horretan, honako hau azpimarratzen da: energia-plangintza, autohornikuntza sustatzea, energia-eraginkortasuna, Smart estrategia eta Administrazioaren zerbitzu elektronikoak hobetzea.

#### LE 6: MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN TRENERA IGOTZEA.

Lerro horretan, bidegorri-sarea sustatzea eta garraio publikoa hobetzea dira helburuak.

#### LE 7: GURE BALIOAK.

Lerro horretan, honako hauek sustatu nahi dira: kultura-artekotasuna, gazteen aktibazioa, ekintzailetzaren sustapena, eta natura-ingurunearen eta genero-berdintasunaren balioak.

#### LE 8: ENPLEGAGARRITASUNAREN HOBEKUNTZA.

Aurreko planean sartzen ez den lerro estrategiko bat da, eta, batez ere, helburu hauek ditu: enplegu-planak garatzea, zenbait kolektiboren enplegagarritasuna hobetzea, enplegu-ibilbideak diseinatzea eta enpleguko-nitxoak aztertzea.

## LE 9: BESTE BATZUK.

Atal horretan, udalerrien artean garatu beharreko jarduketak biltzen dira, ezaugarrien arabera aurrekoetan sartzen ez direnak (biodibertsitatearen estrategia, lehen sektorearen sustapena...), baita eskualde-nortasunaren sustapenarekin lotutako proiektu zehatzak ere (Garapen Agentzia sendotzea, Debabarreneko kultura-agenda bat garatzea, ostalaritza-eskola bat sortzea, arte-eskola bat sortzea...).

Dokumentu honen eranskin gisa, formularioak gehitzen dira indize honen arabera:

- 4.1. eranskina: ESKUALDEKO formularioa, Debabarrena eskualdeko udal guztientzat.
- 4.1. eranskina: Debako formularioa
- 4.1. eranskina: Eibarko formularioa
- 4.1. eranskina: Elgoibarko formularioa
- 4.1. eranskina: Soraluzekeo formularioa
- 4.1. eranskina: Mutrikuko formularioa

## 2.4.- PROIEKTUEN ETA EKINTZEN LEHENESPENA

### 2.4.1.- FORMULARIOAREN EMAITZAK

Aurreko atalean aipatu bezala, formularioak Google Forms erabiliz diseinatu dira. Eskualdeko formulario bat zehaztu da, Debabarrenko udalerrri guztientzat berdina, eta, beste bat, tokikoa eta espezifikoa, udalerrri bakoitzarentzat.

Formularioaren helburua tokiko eta eskualdeko lehentasunak identifikatzea izan da. Azterketa horri esker, lehentasunak konparatu eta proposamen komunak identifikatu dira.

14 pertsonak hartu dute parte inkestetan, arlo politikokoek zein arlo teknikokoek, eskualdeko sei udalerritan (Deba, Elgoibar, Mallabia, Mendaro Mutriku eta Soraluze).

Jarraian, jarduketak lerro estrategikoen arabera azalduko ditugu.

## LE 1: DEBABARRENA, INDUSTRIA-LURRALDEA, LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA.

Lehendik dauden industrialdeak (Goitondo, Itziar, Matsaria, Arriaga, etab.) berreskuratzea eta hobetzea.

Industrialdeen antolaketa eta kudeaketa hobetzea.

Enpresa berriak sortzen laguntzea.

Prestakuntza-zentroen eta enpresa-ehunaren arteko lankidetzaren hobetzea.

Eskualdeko baliabideak aprobetxatzea enpresa-jarduerak garatzeko (Izarra Zentroa, Tekniker, Bic Gipuzkoa, Asmaola...).

## **LE 2: NATURA-TURISMOA ETA KULTURA-TURISMOA: JOMUGA DEBABARRENA.**

Turismo-apainketa eta -mantentzea.

Kultura-turismoko agenda (Historiaurrea, Santiago Bidea, itsas kultura, industria-ondarea, Memoria Historikoa, Arbaso...).

Natura-turismoaren egitaraua (Geoparkea, mendi-ibiltaritza, itsas turismoa, surfa, beste batzuk).

## **LE 3: DEBA IBAIA, ESKUALDEAREN ARDATZA.**

Estuarioaren Plan Berezia sustatzea.

Saneamendu-lanen bultzatzea. Uren kalitatea hobetzea (isuriak txikitzea, usainak...).

## **LE 4: ESKUALDEKO BURUAREN HIRI-BERRITZE IRAUNKORRA**

Auzo desfaboratuen birgaitze integrala sustatzea.

Irisgarritasuna hobetzea.

## **LE 5: DEBABARRENA, ENERGIA ADIMENTSUA.**

Energia-eraginkortasuna sustatzea, eraikin eta argiztapen publikoetan.

## **LE 6: MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN TRENERA IGOTZEA.**

Bidegorriak sustatzea. Udalerrien arteko loturak bultzatzea.

Garraio publikoa indartzea.

## **LE 7: GURE BALIOAK.**

Ekintzailatza sustatzea.

Gazteak aktibatzeke programa.

## **LE 8: ENPLEGAGARRITASUNAREN HOBETUNTZA.**

Enplegu-planak garatzea.

Immigranteen artean hizkuntzaren ezagutza eta prestakuntza sustatzea.

#### **LE 9: BESTE BATZUK.**

Ez da jarduketarik lehenetsi.

#### **2.4.2. ESKUALDEKO MAHAIA ETA EMAITZAK.**

Lehenespenean lortutako emaitzak aztertuta, **planaren bigarren zirriborroa** egin da (9. eranskina: Ekintza Planaren zirriborroa eskualdeko mahaiarentzat). Tokiko mahaietan parte hartzen duten pertsona guztiei eman zaie, eta udal guztiekin egindako bilera batean –hain zuzen, Eskualdeko Mahaian (2017ko iraila)– jorratu da. Biler horretan, 18 pertsonak hartu zuen parte: udaleko politikariak eta teknikariak, eta Debegesako ordezkariak.

9. eranskinetan aurkezten den aurkezpenaren arabera, hauek dira proposatutako **lerro estrategikoak**:

**LE 1. ESKUALDEKO UDALERRIETAKO HIRI-PAISAIA ETA ESPAZIO HONDATUAK BERRITZEA SUSTATZEA.**

**LE 2. ESKUALDEKO NATURA-BALIABIDEAK BERRESKURATZEA, BALIOESTEIA ETA KUDEATZEA.**

**LE 3. IBILGAILU PRIBATUA EZ DIREN GARRAIOBIDEEN ERABILERA SUSTATZEA, BARRUKO ZEIN KANPOKO JOAN-ETORRIAK EGITEKO.**

**LE 4. ENERGIA-EREDU LEHIAKOR BAT GARATZEA, ENERGIA-ERAGINKORTASUNEAN ETA TOKIKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUAN OINARRITUTA.**

**LE 5. ESKUALDEKO INGURUMEN-KALITATEARI BURUZKO EZAGUTZA HANDITZEA, INGURUMEN-KALITATEA HOBETZEA ETA ARRISKUAK TXIKITZEA.**

**LE 6. DEBABARRENEKO BERRINDUSTRIALIZAZIO-EREDUA. ENPRESA-SARE LEHIAKORRA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA, INDUSTRIA-SAREA LEHENETSIZ, DEBABARRENEKO APUSTU PARTEKATU GISA.**

**LE 7. DEBABARRENA PRODUKTU ANITZEKOA, LEHIAKORRA ETA URTE GUZTIKOA DEN TURISMO-HELMUGA GISA INDARTZEA, ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ARTEKO LANKIDETZARI LEHENTASUNA EMANDA.**

**LE 8. DEBABARRENEAN KALITATEZKO ENPLEGUA ETA AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEA.**

**LE 9. BESTE GOBERNANTZA-EREDU BATERANTZ ABIATZEA.**

Hona hemen ondorio nagusiak:

Lan-saio horretan honako hauek dira Debabarreneko estrategia garatzeko behar diren elementu nagusiak: **gobernantza-eredua, lurralde-oreka, berrindustrializazioa eta enplegua**. Halaber, hausnarketa horren esparruan, aurreko planean jasotako **ardatzetan eta proiektu estrategikoetan lanean jarraitu** beharra dago, hiri-birgaitzean eta -berroneratzean, balioetan eta turismoan arreta berezia ipiniz.

Industria-eskualdearen izaerari eusteko eta hura hobetzeko lan egin beharra azpimarratzen da. Hainbat azterketatan egiaztatu da eskualdeak azken urteetan izandako desindustrializazioak, lurralde-desorekek eragindako ondorioekin batera, Debabarrenean eskuarki izan dugun ongizate sozio-ekonomikoa nabarmen hondatu duela; horren ondorioz, Debabarrena eskualdeak mantentze-pobreziaren tasarik handiena du Gipuzkoan. (\*)

(\*) Iturria: OEE. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Premiei buruzko Inkesta, 2014. PGDI-Pobrezia modulua.

Horregatik, beharrezkoa da eskualdean berrindustrializazio-prozesu bat egitea. Prozesu estrategikoa izan beharko du, eta gure eskualdearen datozen urteetarako etorkizuna zehaztu. Prozesu horren garrantzia dela eta, Debegasak eta Debabarreneko udalek udalez gaindiko erakundeen (hala nola. foru-aldundiak, Spri, Sprilur eta Eusko Jauriaritza) laguntza eta bultzada beharko dituzte.

Era berean, begien bistakoa da Debabarrenak duen garrantzia bi hiriburuen (Bilbo eta Donostia) kokapenari dagokionez. Bileretan parte hartutako pertsonak, alkateek eta zinegotziek, eskualdeko udalerrri guztien arteko lankidetzari ezinbestekoa dela, funtsezko estrategiak burutzeko. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Debabarrenak Euskal Hiriarekin duen lotura.

Debabarrena eskualdea askotarikoa da, erreferentzia gisa Deba ibaia eta Ego ibaiadarra dituena. Debabarrena eskualdeko nortasuna indartu eta sendotu behar duen erreferentziatzko elementua da ibai hori. Bizitza soziala eta naturala berreskuratzea proiektu estrategikotzat hartzen da, herritarrek eskualdearen garapenaren alde egitea ekar bailitzake.

Azkenik, eta berriro ere, beste gobernantza-eredu bat garatu behar dela azaltzen da, betiere, Debegesa Administrazio Kontseiluko zuzendaritzapean, kontuan hartuta herritarrek garrantzi handiagoa izan behar dutela Debabarrenaren garapenean.

## **2.5. PLANAREN DEFINIZIOA**

Eskualdeko Mahaian lerro estrategikoei buruz hausnartu eta haiek lehentasunen arabera antolatu ondoren, behin betiko berrikuspena definituko dugu. Jarraian deskribatuko dugu.

Jasotako ideiek eta ekarpenek jarraipena ematen diete aurreko plan estrategikoko lerro estrategikoei. Hala ere, ñabardura handiak eta ikuspegi berriak hartu dira aintzat, eta haiek zabaltea proposatzen da. Gainera, Debabarrena eskualdeko udalerrri batentzat baino gehiagorentzat interesgarriak izango diren lerro estrategiko berriak proposatzen dira. Labur esanda, industria-garapenarekin lotutako lerro estrategikoak indartu dira, eta argi eta garbi proposatzen da enpleguarekin lotutako lerro estrategiko berri bat sartzea.

Jarraian, proposatutako **lerro estrategikoak** ageri dira, lehentasunen arabera:

### **L.E.1. BESTE GOBERNANTZA-EREDU BATERANTZ ABIATZEA.**

### **L.E.2. DEBABARRENEKO BERRINDUSTRIALIZAZIO-EREDUA. ENPRESA-SARE LEHIAKORRA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA, INDUSTRIA-SAREA LEHENETSIZ, DEBABARRENEKO APUSTU PARTEKATU GISA.**

### **L.E.3. DEBABARRENEAN KALITATEZKO ENPLEGUA ETA AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEA.**

### **L.E.4. ESKUALDEKO UDALERRIETAKO HIRI-PAISAIA ETA ESPAZIO HONDATUAK BERRITZEA SUSTATZEA.**

### **L.E.5. DEBABARRENA PRODUKTU ANITZEKO, LEHIAKORRA ETA URTE GUZTIKO DEN TURISMO-HELMUGA GISA INDARTZEA, ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ARTEKO LANKIDETZARI LEHENTASUNA EMANDA.**

**L.E.6. ENERGIA-EREDU LEHIAKOR BAT GARATZEA, ENERGIA-ERAGINKORTASUNEAN ETA TOKIKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUAN OINARRITUTA.**

**L.E.7. ESKUALDEKO NATURA-BALIABIDEAK BERRESKURATZEA, BALIOESTEIA ETA KUDEATZEA.**

**L.E.8. IBILGAILU PRIVATUA EZ DIREN GARRAIOBIDEEN ERABILERA SUSTATZEA, BARRUKO ZEIN KANPOKO JOAN-ETORRIAK EGITEKO.**

**L.E.9. ESKUALDEKO INGURUMEN-KALITATEARI BURUZKO EZAGUTZA HANDITZEA, INGURUMEN-KALITATEA HOBETZEA ETA ARRISKUAK TXIKITZEA.**

### **2.5.1.- PLANAREN GAKOAK**

#### **Lurralde-mailan,**

Debabarrena **Euskadiko hiru hiriburuen** hiri-eraginaren mende dagoen eskualdea da. Oso ondo komunikatuta dago, eta aukera bikainak ditu hiriburuekiko duen **kokapen estrategikoari** dagokionez. Lehenetasunez jotzen da alderdi hori indartzea, hiriburuen garapen-eredu zentripetuaren ondorioz **gaur egun urruntze-egoeran** baitago eskualdea.

Hiri-ingurune erakargarriagoa sortze aldera, lehenetasuna eman zaio **espazio degradatuetan** esku hartzeari, batik bat Sorraluzen. **Hiri-paisaia berritu** eta **auzo desfaboratuak erabat birgaitu** behar direla nabarmentzen da, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko lehenetasunezko esku-hartzea behar duten esparruak baitira. Bestalde, **industria-erabilera izandako hiri-eremuak** berroneratzea ere garrantzitsua da. Gainera, **industrialdeen berroneratzea** ere proposatzen da.

Halaber, lehenetasunezkoa izango da **Deba ibaia** berreskuratzea eta **eskualdeko ardatz** gisa hartzea, eta, 2022. urterako, Deba ibaiaren **uraren kalitate ona** lortzea lau neurketa-estazioetan. Deba ibaia **ingurumen-korridoretzat** hartu behar da, zeharkatzen dituen hiri-esparruak hobetzeko; izan ere, ibaiak aisialdirako guneak ditu ondoan, eta inguruko natura-eremuetara joateko bideak.

Planaren indarraldiaren lehen erdian, **eremu babestuaren** kudeaketa hobetzea eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea izango dira helburuak, **natura-intereseko guneak** bereziki babesteko.

**Eskualdeko mugikortasun-eredu berri bat** bultzatzea, udalerrietako erdiguneetan oinezkoen mugikortasuna errazteko, eta trenbidea funtsezkoa izan dadin eskualdeko mugikortasunean, Euskotrenen



gaur egungo sarean oinarrituz hiri- eta metropoli-mailako zerbitzu bat sortuz, **Ermua-Eibar-Elgoibar-Mendaro-Deba** artean 10-15 minutuko maiztasuna lortzeko asmoz.

### **Ekonomia-mailan,**

Bi **erronka** nagusi ditugu: alde batetik, Debabarrenean **berrindustrializazio-prozesua** abiatzea eta, bestetik, **inbertsioak eta proiektu garrantzitsuak erakartzea**, lurralde-desorekak eskualdean dituen eraginak txikitze aldera.

Lehentasun gisa, **eskualdeko berrindustrializazio-prozesua** aztertuko dugu, prozesuaren funtsezko faktoreak kontuan hartuta:

- Lehiakortasuna: egungo industria-enpresei lehiakorragoak izaten eta balio erantsi handiko sektoreetan enpresak sortzea sustatzea.
- Talentua: ekimenak garatuz, enpresek beren proiektuak garatzeko beharrezkoa den talentua izan dezaten.
- Azpiegiturak: gaur egun ditugun baliabideak balioetsiz, etorkizuneko industria-sektoreetako enpresak erakartzeko.

Lurralde-desorekari dagokionez, Debabarrena hiru hiriburuetatik (batez ere, Donostia eta Bilbo) distantzia berera egotearen ondorio negatiboak jasaten ari dira, hiri horietan biltzen diren proiektu estrategikoen eta inbertsioen eraginetik kanpo geratzen baita. Hori dela eta, inbertsioak erakartzeko politika aktiboa izan behar dugu, eta, horretarako, lehenik eta behin, gure baliabideak balioesten saiatu beharko dugu.

Lan-ildo horrek **sektore estrategikoetan (industria-sektorea eta balio erantsiko zerbitzuen sektorea) eragileak** diren enpresak erakar ditzake **Debabarrenera**.

Indargune gisa, azpimarratu beharra dago **industria-ezagutzaren eta enpresa-garapen berritzailerako eragileen eta laguntza-baliabideen ekosistema**: lanbide-heziketako ikastetxeak (Armagintza Eskola, IMH, Meka, Mutrikuko Institutua, Eibar-Ermua unibertsitatea), unibertsitate-zentroak (Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola eta IMH Ingeniaritza Dualeko Unibertsitate Eskola), zentro teknologikoak (IK4-Tekniker eta IK4-Ideko), Bic Gipuzkoa, Asmaola (ETE-en berrikuntza eta transferentzia teknologikorako zentroa) eta inkubazio-eremuak (Izarra Centre, Eibargunea eta Teknikerreko inkubagailu teknologikoa).

Kontuan izan behar dugu **pertsonek** garapen horretan guztian **izandako garrantzia**, bai industriako eta teknologiko bokazioak sustatzean, bai gaur egungo gazteen talentua atxikitzean. Hori dela eta, haien bizitza pertsonala eta profesionala garatzeko baldintza egokiak eskaini beharko ditugu.

Aurreko egoera aintzat hartuta, eta Debabarreneko berrindustrializazio-ereduan aurrera egin nahi badugu, funtsezkoa izango da Debegesaren eta Debabarreneko udalen apustu irmo eta indartsua. Apustu horrek garrantzizko eta eskualde-mailako proiektu estrategikoak (udalerrri guztien indarrak gehituz) sortzea ekarri behar du. Proiektu horiek berrindustrializazio-prozesu honetan funtsezkoak diren faktore guztiak hartu behar dituzte kontuan, hala nola pertsonak, enpresak eta azpiegiturak (Debabarreneko Enplegu Mahaiaren ardatzak).

### **Ingurumenari dagokionez,**

Planak Euskadiko 2020rako Energia Estrategiarekin eta Europako erronkekin bat datorren energia-eredu berri bat garatzeko konpromisoa du. Energia-plangintzan jarri dugu arreta berezia, energia berriztagarrien hurbiltasun-produkzioan oinarritutako eredu berri bat lortze aldera.

Ildo horretan, planak helburu hau izan beharko luke: 2020rako eskualdeko energia-kontsumoaren % 12 iturri berriztagarrietatik etortzea.

Eskualdeko ingurumen-kalitateari buruzko informazioa hobetzea ere garrantzitsutzat hartzen da, herritarrek aduratsua diren eta ingurunea errespetatzen duten kontsumo-jarraibideak euren gain har ditzaten.

### **Gizarte-mailan,**

Neurri handi batean, planak sustatu egin nahi du **gizarte-egoerarik ahulenean dauden kolektiboek eta biztanle-sektoreek enplegua lortzea**, hala nola emakumeek, 45 urtetik gorako pertsonak, immigranteek eta, oro har, lana lortzeko zailtasunak dituztenek. Zentzu horretan, funtsezkoa da pertsona horien titulazio-maila handitzea eta, ahal izanez gero, industria-sektorerara bideratzea; izan ere, sektore horrek ematen du kalitate handiagoko enplegua, eta aberastasun handiagoa sortzen du biztanleen artean.

Orobat, garrantzitsua da gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egon daitezkeen pertsonak **gizarteratzeko** tresnak bultzatzea, batez ere, atzeritarren artean bazterketa-poltsarik sor ez dadin.

Planak oso aintzat hartzen ditu eskualdearen balioak eta haien balioetsi beharra; ildo horretan, planak eskualdean zintzotasuna, errespetua, ekintzailtza eta lankidetzak bultzatzeko helburua du.

## **2.5.2. LERRO ESTRATEGIKOEN ETA EGITARAUEN GARAPENA.**

### **LE 1. BESTE GOBERNANTZA-EREDU BATERANTZ ABIATZEA**

**P 1.1. Gizarte- eta ekonomia-eragileek eskualdearen garapenean erantzunkidetasunez eta aktiboki parte har dezaten sustatzea.**

**A 1.1.1.** Herritarrek eskualdean garatzen diren ekimenen parte-hartzea errazten duten kanal berriak prestatzea.

**A 1.1.2.** Debegesaren webgunea eguneratzea eta haren erabilerraztasuna hobetzea.

**A 1.1.3.** Debegesaren garatutako plan eta ekimenen emaitzak koordinatu eta planifikatzea.

**A 1.1.4.** Eskualdeko balioak sustatzeko jarduera-programa bati diseinatu eta martxan jartzea.

**P 1.2. Barne-koordinazioa eta zeharkakotasuna sustatzea Debegesak sustatutako ekimenen diseinuan, gauatzean eta jarraipenean.**

**A 1.2.1.** Sektoreko mahaiak eta haien arteko koordinazioa indartzea.

**A 1.2.2.** Barne-mailako jarraipen-mekanismo bat sortzea.

**A 1.2.3.** Debegesako barne- eta kanpoko partaidetza-organoak Debegesaren urteko kudeaketa-planaren partaide egitea.

**P 1.3. Eskualdeko udalerriei laguntzea tokiko iraunkortasun-politikak planifikatzen eta kudeatzen.**

**A 1.3.1.** Udalei laguntzea udal-politikak finkatzeko eta kudeatzeko baliabide teknikoetan trebatzen.

**A 1.3.2.** Udaletako langile tekniko eta politikoei orientazioa zein prestakuntza eta informazioa ematea.

## **LE 2. DEBABARRENEKO BERRINDUSTRIALIZAZIO-EREDUA. ENPRESA-SARE LEHIAKORRA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA, INDUSTRIA-SAREA LEHENETSIZ, DEBABARRENEKO APUSTU PARTEKATU GISA**

### **LEHIAKORTASUNAREN ARDATZA**

#### **P 2.1. Debabarrenean robotika eta automatizazioa garatzeko apustua.**

A 2.1.1. Enpresetan robotika eta automatizazioa ezartzea.

A 2.1.2. Robotikaren alorrean enpresak sortzen laguntzea.

#### **P 2.2. Debabarrena industria- lurraldea: enpresa eragileak erakartzea, Debabarrenean (prototipoak probatzeko gunea) koka daitezten.**

A 2.2.1. Inbertsioak erakartzeko gure eskaintza bereizgarria zehaztea.

A 2.2.2. Lurrak, azpiegiturak, eskaintza teknologikoa eta baliabideak aztertzea.

#### **P 2.3. Debabarreneko enpresa osagarriei laguntzeko plan integrala. Arreta merkatuan ipintzea.**

A 2.3.1. Profesionalizazioa (teknikoki eta gaitasunen aldetik).

A 2.3.2. Espezializazioan arreta jartzea.

A 2.3.3. Merkatuak ezagutzea (merkatu berriak identifikatzea: salmenta).

A 2.3.4. Ekintza-plana garatu eta gauzatzea.

#### **P 2.4. Unibertsitateak enpresei ezagutza transferitzeko ekosistema bat sortzea.**

A 2.4.1. Eragileak identifikatzea, ekintza-eredua zehaztea eta eredia martxan jartzea.

#### **P 2.5. Lehiakortasuna pertsonen bidez hobetzeko plana.**

A 2.5.1. Pertsonak enpresen estrategian inplika daitezten sustatzea.

A 2.5.2. Talentua atxikitzea.

#### **P 2.6. STEAM bokazioak sustatzea.**

**A 2.6.1.** Robotikari buruzko udako tailerrak.

**A 2.6.2.** Euskadiko Hezkuntza Robotika Txapelketa.

## **BERRINDUSTRIALIZAZIO-EREDUAREN ARDATZA**

### **P 2.7. Debararreneko lehiakortasuna garatzeko estrategia zehaztea.**

**A 2.7.1.** Sektoreko plan espezifikoak, makina-erremintarentzat eta automobilgintza-industria osagarriarentzat.

**A 2.7.2.** Oinarrizko azpiegiturak garatzeko ekintza-plana: industria-lurzoria eta zuntz optikoa.

**A 2.7.3.** Jarduera-sektore berriak: industria-zibersegurtasuna, robotika eta automatika.

**A 2.7.4.** Enpresa-proiektuak bizkortzeko gunea (intraekintzailtza).

### **P 2.8. Debararrena, enpresa-aukerak dituen lurraldea.**

**A 2.8.1.** Debararrena Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren interes-panelean sartzea, enpresa-inbertsioak erakartzeko eta eskualdean finkatzeko (Invest in Debararrena).

**A 2.8.2.** Eskualdeko udalerriekin batera lan egitea, industria-lurzoria garatzeko estrategian.

### **P 2.9. Pertsonen prestakuntza.**

**A 2.9.1.** Debararreneko unibertsitate-eskola finkatzea (Eibarko eta Elgoibarko zentroetan), graduondoak eskainiz.

**A 2.9.2.** Debararrena Talent: eskualdeko talentua atxikitzea (eta, hala bada, erakartzea).

**A 2.9.3.** Bokazio teknikoak eta teknologikoak suspertzen ari diren eta erakarri nahi diren sektoreetara (robotika, automatika eta industria-zibersegurtasuna) bideratzea.

### **3. LE. DEBABARRENEAN KALITATEZKO ENPLEGUA ETA AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEA**

**P 3.1. Lan ibilbideak diseinatzea titulazio-maila txikia duten, lan-merkatutik kanpo dauden eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboentzat.**

**A.3.1.1.** Eskualdeko eragile guztien (publikoak zein pribatua) artean GIZARTERATZE-SARE bat sortzeko proiektua.

**A.3.1.2.** TXERTATU MERKATUAN proiektua, bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden gazteentzat.

**A.3.1.3.** Hizkuntzaren ezagutza indartzen duten proiektuak (gaztelania atzerritarrentzat) eta immigranteentzako prestakuntza.

**P 3.2. 45 urtez gorako pertsonen lana aurkitzen laguntzea, batez ere fabrikazio-sektorean esperientzia dutenei.**

**A.3.2.1.** Laguntza- eta orientazio-proiektuak 45 urtetik gorako pertsonentzat: Esperientzia +45

**P 3.3. Langabezia dauden emakumeen lanbide-prestakuntza hobetzea.**

**A.3.3.1.** Prestakuntza- eta laguntza-proiektuak bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzat.

**A.3.3.2.** Alfabetatzea, ahalduntzea eta lanbide-orientazioa emakumezko immigranteentzat.

**A.3.3.3.** Lanbide-merkatuan sartzeko aukera ematen duten espezializazioei buruzko prestakuntza, ikasketa-maila txikiko emakumeentzat.

**A.3.3.4.** Administrazio- eta humanitate-alorreko titulazioa duten emakumeei zuzendutako prestakuntza: industria-enplegetara bideratzea.

**A.3.3.5.** Prestakuntza-maila txikia duten emakumeen profilak industria-eskakizunetara egokitzea.

**P 3.5. Titulazioa duten gazteak lan-merkatura hurbiltzea.**

**A 3.5.1.** HAZILAN programa: unibertsitate tituluak edo prestakuntza zikloak dituzten gazte langabetuak. Zehar-gaitasunei buruzko prestakuntza + Prestakuntza espezifiko (proiektuen kudeaketa) + praktikak enpresetan.

**A 3.5.2.** Zehar-gaitasunei eta automarketin-tresnei buruz trebatzea.

#### **4. LE. HIRI-BERRITZE IRAUNKOR ETA INTEGRATURANTZ: ESKUALDEKO UDALERRIETAKO HIRI-PAISAIA ETA ESPAZIO HONDATUAK BERRITZEA SUSTATZEA**

##### **P 4.1. Hiriguneen kalitatea hobetzea eta haien dinamismoa bultzatzea.**

**A 4.1.1. Hirigintza-tresnak** (hiri-berritzerako plan Bereziak, jarduketa-programak, etab.) sustatzea eta garatzea, hiri-paisaia berritzeko, eraikinak zaharberritzeko, bizitegi-kongestioa txikitzeko, hiri-esparrua eraldatzeko eta merkataritza-ehuna biziberritzeko.

**A 4.1.2. Hiri-paisaia** hobetzea eta mantentzea, espazio publiko eta pribatuetan era koordinatuan esku hartuz, mugikortasun iraunkorrerako espazioak berreskuratzeko jarduketak aintzat hartuta, **Deba ibaiaren** inguruan arreta berezia jarritz.

**A 4.1.3. Auzo desfaboratuen birgaitze integrala** sustatzea (irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna, etab.).

**A 4.1.4.** Udaleko hirigintza-planifikazioa berrikusteko prozesuak babestea, **erabilera-nahasteak** sustatzeko. batez ere **industria-erabilera izandako hiri-esparruetan.**

**A 4.1.5. Industria-esparruak birsortzeko** politikak sustatu eta garatzea, jarduera ekonomikoa finkatzeko, sortzeko eta erakartzeko.

**A 4.1.6. Hiriaren eta natura-gunearen arteko esparruetan paisaia-kalitatea hobetzeko** esku-hartzeak bultzatzea.

**A 4.1.7. Hiri-errepide zaharren** berrurbanizazioa sustatzea, aurreikusitako saihebidetarako martxan jarri ostean.

**A 4.1.8. Soraluzeko hiri-berritze iraunkor eta integratua** egiteko laguntza berezia.

##### **P.4.2. Eraikitako ondarearen birgaitze iraunkorra sustatzea.**

**A 4.2.1. Birgaitze iraunkorreko lanak** ahalbidetzen dituzten tresnak sustatzea.

**A 4.2.2.** Etxebizitzetan energia-hobekuntzak bultzatzea, sentsibilizazio-programen bidez eta energia-eraginkortasuna eta energia aurrezteko hobetzeko sistemen berri emanez.

**A 4.2.3.** Etxebizitzak birgaitzeko laguntzak babestea eta kudeatzea.

**A 4.2.4.** Diseinu-fasean nahiz lanen fasean beharrezko neurriak sustatu eta bultzatzea (materialak, hondakinak kudeatzea...), etxebizitzetan eta eraikinen birgaitze-lanak iraunkorrak izan daitezzen.

**A 4.2.5. Hirigune historikoetako** arkitektura- eta historia-ondarea balioestea, baita **industria-ondarea** ere.

**A 4.2.6. Erabilerarik gabeko industria-eraikin eta -lurzoruak** berrerabiltzea.

**A 4.2.7.** Udalaren eraikinetan eta zerbitzuetan energia-eraginkortasuna hobetzea.

**P 4.3. Lurralde-oreka: Eskualde-mailan koordinazio hobea izaten lagundu dezaketen lurralde-proiektu estrategikoen eta ekintzen garapena bultzatzea.**

**A 4.3.1.** Metropoli-antolaketa eta Euskadiko hiru hiriburuekiko **kokapen estrategikoa** sustatzeko neurriak hartzea.

**A 4.3.2.** Sektore- eta lurralde-plangintzan aurreikusitako **errepide- eta trenbide-azpiegituren** garapena bultzatzea.

**A 4.3.3. Deba ibaia** berreskuratzea eta eskualdeko ardatz gisa hartzea.

**A 4.3.4. Hiri-berroneratzeko udalerriz gaindiko** jarduketak sustatzea.



## **5. LE. DEBABARRENA PRODUKTU ANITZEKOA, LEHIAKORRA ETA URTE GUZTIKOA DEN TURISMO-HELMUGA GISA INDARTZEA, ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ARTEKO LANKIDETZARI LEHENTASUNA EMANDA**

**P 5.1. Ezagutzan eta parte-hartze publiko eta pribatuan oinarritutako turismo-kudeaketa sustatzea, baterako lan-formulak sortuz.**

**A 5.1.1.** Turismo Plan Estrategikoaren bideragarritasuna bermatzeko baliabideak eta ahalmenak egokitzea.

**A 5.1.2.** Planaren gobernantza.

**A 5.1.3.** Beste erakunde batzuekin lankidetzan eta koordinatuta jardutea.

**P 5.2. Eskualdeko turismo-esparrua hobetzea eta haren baliabideak balioestea, iraunkortasunari eta kalitateari dagokienez.**

**A 5.2.1.** Helmugaren konektibitatea eta irisgarritasuna hobetzea.

**A 5.2.2.** Seinaleztapena hobetzea.

**A 5.2.3.** Ondare-baliabideen balioztatzea.

**A 5.2.4.** Eskualdeko helmugari buruzko informazio- eta harrera-sistema hobetzea.

**A 5.2.5.** Turismo-apainketa eta -mantenua.

**P 5.3. Baliabideak hobetzea eta turismo-produktuen eskaintza garatzea.**

**A 5.3.1.** Kultura-turismoa garatzea.

**A 5.3.2.** Natura-turismoa: Ekoturismoa eta Turismo Aktiboa.

**A 5.3.3.** Turismo Profesionala garatzea.

**A 5.3.4.** MICE (Negozio-turismoa) garatzea.

**A 5.3.5.** Kirol-turismoa garatzea.

**A 5.3.6.** Turismo gastronomikoa.

**A 5.3.7.** Touring.

**A 5.3.8.** Turismo-eskaintza dibertsifikatzea eta hobetzea.

**P 5.4. Urtarokotasunaren aurka egitea eta biztanleek turismo-jarduerarekin bat egin dezaten lortzea.**

**A 5.4.1.** Nortasun korporatiboa sendotzea: marka eta posizionamendua.

**A 5.4.2.** Merkaturatzea sustatzea eta bideratzea.

**A 5.4.3.** Merkatua ezagutzea.

**A 5.4.4.** Sentsibilizazioa eta fidelizazioa.

**P 5.5. Turismo-arloko enpresa-sare lehiakorra, profesionala eta bezeroarengana orientatua sustatzea, bikaintasuna, bezeroen gogobetetze eta leialtasuna lortzeko.**

**A 5.5.1.** Prestakuntza-programa.

**A 5.5.2.** Berrikuntza eta kalitatea sustatzeko ekintzak.

**A 5.5.3.** Turismo-jardueraren iraunkortasuna sustatzea, ingurumenaren aldetik.

**A 5.5.4.** Turismo-sektorean enpresa-jarduera bultzatzea, turismo-sektorearen potentziala (sozioekonomikoa eta enpleguaren aldetik) garatuz.

## **6. LE. ENERGIA-EREDU LEHIAKOR BAT GARATZEA, ENERGIA-ERAGINKORTASUNEAN ETA TOKIKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDUAN OINARRITUTA**

**P.6.1. Eskualdeko energia-eredu berri bat diseinatzea, deszentralizazioan, energia berriztagarrien erabileran eta erakunde arteko elkarlanean oinarrituta.**

**A 6.1.1.** Debarreneko Energia Mahaia osatzea.

**A 6.1.2.** Energia-politika iraunkorren alde aliantza sare-bat sustatzea.

**A 6.1.3.** Eskualdean Energia Iraunkorraren eta Klima Aldaketaren Plan Estrategikoa zehaztea eta ezartzea.

**P 6.2. Arlo guztietan energia-eraginkortasuna sustatzea.**

**A 6.2.1.** Eskualdeko eraikin-ehunaren birgaitzea sustatzea, energia-eraginkortasunaren irizpideak aintzat hartuta.

**A 6.2.2.** Enpresa-sarearen energia-eraginkortasuna sustatzea, baita lehen sektorean ere.

**A 6.2.3.** Merkataritza-sarean energia-eraginkortasuna sustatzea.

**A 6.2.4.** Etxebizitzetan energia-eraginkortasuna sustatzea.

**A 6.2.5.** Garraioan energia-eraginkortasuna sustatzea.

**A 6.2.6.** Administrazio publikoaren definizioan eta kudeaketan energia-eraginkortasuna sustatzea.

**P 6.3. Energiaren erabilerari eta kudeaketari buruzko sentsibilizazioa.**

**A 6.3.1.** Herritarrak energia-erabilerari eta -kudeaketari buruz kontzientziaztea.

**P 6.4. Tokiko talentua sustatzea.**

**A 6.4.1.** Eskualdean energia-eraginkortasunari eta energia berriztagarriei buruzko heziketa-eskaintza sustatzea.

**A 6.4.2.** Eskualdeko hezkuntza-sarearekin (batez ere LHko zentroekin eta Unibertsitatearekin) elkarlanean aritzea.

**A 6.4.3.** Enplegarritasuna sustatzeko estrategiak (prestakuntza-maila handia duten gazteak, gremioak...).

**P 6.5. Energia sustatzea, dibertsifikazioaren faktore lehiakor eta elementu gisa.**

**A 6.5.1.** Energia-faktorea (energia-eraginkortasuna, smart grid-ak, sorkuntza banatua, energia berriztagarriak...) barne hartzen duten tokiko eta eskualdeko garapen-proiektuak sustatzea, lehiakortasunaren elementu gisa.

**A 6.5.2.** Debabarrena energia-gaietan erreferentziatzeko eskualdea izatea ahalbidetuko duten jarduerak sustatzea.

**A 6.5.3.** Enpresa-aliantzak sustatzea, produktua sortzeko.

**A 6.5.4.** Sektorea profesionalizatzeke neurriak hartzea, energia-eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien politikekin bat datozenak.

## **7. LE. ESKUALDEKO NATURA-BALIABIDEAK BERRESKURATZEA, BALIOESTEA ETA KUDEATZEA.**

### **P 7.1. Eskualdeko natura- eta paisaia-balioak ikertu eta ezagutzea.**

**A 7.1.1.** Natura-ingurunearen balioei eta natura kontserbatzeko jarraibideei buruzko informazio-kanpainak egitea.

**A 7.1.2.** DEBEMENekin eta Euskal Kostaldeko Geoparkearekin lankidetzak aktiboa izatea, natura- eta paisaia-baliabideen balioespenean.

**A 7.1.3.** Natura-turismoaren produktuen garapena bultzatzea.

### **P 7.2. Eskualdeko gune babestuen kudeaketan laguntzea.**

**A 7.2.1.** Natura-gune babestuen (Natura Sarea, Biotopoa) kudeaketarako tresnak garatzen laguntzea.

**A 7.2.2.** Udal-plangintza egiteko prozesuetan eta udalerriz gaindiko dokumentuak idazteko prozesuetan parte hartzea.

### **P 7.3. Deba eta Ego ibaien ingurumen-berreskurapena egitea.**

**A 7.3.1.** Deba eta Ego ibaiak berreskuratzeko eta balioesteko programa integratuan aurreikusitako ekintzak garatu eta gauzatzea.

**A 7.3.2.** Deba ibaiaren berreskurapen- eta balioespen-programa integralaren berrikuspenera eta jarraipenera egitea.

**A 7.3.3.** Deba eta Ego ibaiak berreskuratzeko eta balioesteko planean erakundeek parte har dezaten lortzea.

**A 7.3.4.** Eskualdeko jendeak ibaia egunero erabili eta ezagutu dezaten sustatzea.

**A 7.3.5.** Hodi-biltzaileetan egiten ari diren lanen jarraipena egitea.

### **P 7.4. Eskualdeko flora eta faunaren gaineko eraginak murriztea.**

**A 7.4.1.** Espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta desagerrarazteko ekintzak egiten jarraitzea.

## **8. LE. IBILGAILU PRIBATUA EZ DIREN GARRAIOBIDEEN ERABILERA SUSTATZEA, BARRUKO ZEIN KANPOKO JOAN-ETORRIAK EGITEKO**

### **P 8.1. Pertsona fisikoen eta salgaien mugikortasun iraunkorra errazteko baldintza fisikoak garatzea.**

**A 8.1.1.** Debarreneko bizikleta-estrategia sustatzea eta bidegorri-sarea udalerrri bakoitzeko hirigintza-plangintzan sartzea.

**A 8.1.2.** Ikastetxeen inguruko eskola-bide seguruen proiektuen garapena bultzatzea.

**A 8.1.3.** Intermodalitatea sustatzea.

### **P 8.2. Ibilgailu pribatuan egiten diren joan-etorrien eragina murriztea.**

**A 8.2.1.** Eskualdean ibilgailu elektrikoen eta kontsumo txikiko ibilgailuen erabilera sustatzea, erabilera hori bultzatzeko beharrezko neurriak aztertuz.

### **P 8.3. Garraio publikoa sustatzeko neurriak hartzea.**

**A 8.3.1.** Eskumeneko erakundeekin lankidetzan aritzea, garraio publikoa hobetzeko.

**A 8.3.2.** Mugikortasun Mahaia dinamizatzea, parte hartzeko eta koordinatzeko organismoa den aldetik.

**A 8.3.3.** Debarrenaren eta inguruko eskualdeen arteko lotura aztertzea, eta hura hobetzeko beharrezkoak diren ekintzak sustatzea.

**A 8.3.4.** Eskualdeko trenbide-konexioen hobekuntza sustatzea, eta garraio publiko intermodala handitzeko eta hobetzeko ekintzak sustatzea (irisingarritasuna, informazioa eta intermodalitatea).

### **P 8.4. Maiztasun handiko tren martxan jar dadin bultzatzea.**

**A 8.4.1.** ETSrekin eta Euskotrenekin elkarlanean aritzea, maiztasun handiko tren martxan jartzeko.

**9. LE. ESKUALDEKO INGURUMEN-KALITATEARI BURUZKO EZAGUTZA HANDITZEA, INGURUMEN-KALITATEA HOBETZEA ETA ARRISKUAK TXIKITZEA.**

**P 9.1. Eskualdeko ingurumen-kalitatearen inguruko ezagutza hobetzea eta kalitate hori handitzeko neurriak hartzea.**

**A 9.1.1.** Herritarrei eskualdeko ingurumen-kalitatearen berri ematea eta horren inguruan sentsibilizatzea.

**A 9.1.2.** Udalaren ingurumen-kudeaketa sustatu eta laguntzea.

**P 9.2. Industria-jardueraren ondoriozko kutsadura prebenitzea.**

**A 9.2.1.** Ingurumen-legeria betetzea errazteko tresnei buruzko informazioa ematea eta tresna horiek diseinatzea.

**A 9.2.2.** Udalerrietako kutsadura-arriskuen egoeran jarraipena bideratzea.

#### 4. BERRIKUSPENA ETA JARRAIPENA

Eskualdeko Iraunkortasunerako Ekintza Planaren jarraipen-eredua zehazteak hau du helburu: udalekin eta eskualdeko herritarrekin elkarrizketa jarraitua izatea, egiten diren aurrerapenei nahiz aurkitzen diren zailtasunei buruz. Hori guztia, plana martxan jartzean protagonistak direla barneratu eta halakotzat jardun dezaten.

Premisa horiek kontuan hartuta, jarraipen-modelo hau proposatzen da, zenbait mailatan:

1. Debegesako Administrazio Kontseilua plan estrategikoa gauzatzeko eta kontrolatzeko arduraduna da. Esparru horretan, eta gutxienez sei hilean behin, Debegesaren kudeaketaren deskargua egin behar da. Deskargu horretan, egindako aurrerapenak eta gertatutako gorabeherak bildu beharra dago, komenigarritzat hartzen diren alderdiei buruzko erabakiak hartzeko.
2. Lehentasun bakoitzeko, lan-mahai bat eratuko da, lehendik daudenez gain; haietan, udaletako pertsonak hartuko dute parte. Mahai horietan, lan egiteko eta lana egiaztatzeko aukera izango zuten Debegesako teknikariek eta udal bakoitzean esparru bakoitzean erantzukizuna duen pertsonak. Mahai bakoitza ekintza espezifikoak ezartzeaz eta haien jarraipena egiteaz arduratuko da, eta, beraz, autonomia-maila handia izan beharko dute lehentasun bakoitza hedatzeko. Mahaia horietako bakoitza, bere dinamikaren arabera, bilerak zenbatean behin egitea adostuko du.
3. Urtean behin, bilera espezifiko bat egingo da interesa duen udal bakoitzean, baina guztietan egotea da asmoa. Bilera horretan, Debegesak urtean jorratutako gaien inguruko deskargua egingo du, plan estrategikoan ezarritakoari dagokionez, eta, gainera, hurrengo urterako aurreikuspenak aurkeztuko ditu. Interesgarria izango litzateke bilera horretan udalbatza bakoitzeko pertsona, politikari eta teknikari askok parte hartzea. Saio horrek tokiko garapenaren errealitatea udalerrri bakoitzera hurbiltzea du helburu, baita egindakoari buruz zer iritzi duten eta etorkizunerako zer kezka edo itxaropen dituzten biltzea ere.



